



LAN ETA JUSTIZIA  
SAILA  
Justizia Sailburuordetza  
*Justizia Administrazioako Zuzendaritza*

DEPARTAMENTO DE TRABAJO Y  
JUSTICIA  
Viceconsejería de Justicia  
*Dirección de la Administración de Justicia*

**EBAZPENA, 2020KO APIRILAREN 20KOA, JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARIARENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO JUSTIZIA ALORREKO EGINKIZUN PUBLIKOAN EMAN BEHARREKO ZERBITZUAK EGOKITZEKO DENA.**

---

Apirilaren 10eko 487/2020 Errege Dekretua (COVID-19 pandemia kudeatzeko alarma-egoera 15 egunez luzatzea aurreikusten zuena) indarrean jarri ondoren, martxoaren 29ko 10/2020 Errege Dekretuan aurreikusitako konfinamendu kualifikatuko irizpideak aplikatzen ez diren egoera berri batean, Justiziako ministroak 2020ko apirilaren 13ko Ebazpena eman zuen. Ebazpen haren bidez, Justizia alorreko Zerbitzu Publikoa aipatutako Errege Dekretura egokitzen zen, eta fase berri horretara egokituko dira, era berean, epaitegien eta auzitegien funtzionamendua, bai eta justizia-administrazioaren funtsezko zerbitzuen araubidea ere. Horretarako, justiziaren zerbitzu publikoa behin-behinean berraktibatzeke oinarriak ezartzen ditu.

Helburu berarekin, baina Autonomia Erkidego honen eskumen-eremura mugatuta, Lan eta Justiziako sailburuak 2020ko apirilaren 13ko Agindua eman zuen, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioan eman beharreko zerbitzuak egokitzen dituen, eta eman beharreko zerbitzuen artean jaso zen "bulego judicial eta fiskaletan modu telematikoan aurkeztutako idazki guztiak erregistratzea eta horiek organo eskudunei banatzea".

Autonomia Erkidego honetan ez dago garatuta hasierako idazkiak telematikoki aurkezteko prozedura, eta, beraz, alde aurretiko hitzorduaren sistema bat ezarri da; horrek esan nahi du jendea agertuko dela hitzorduetara, eta, horretarako, prebentzio-neurriak hartu beharko direla alde aurretiko hitzordu horietarako prestatutako eremuetan.



Jarraipen Batzordearen Organo Iraunkorrek 2020ko apirilaren 17an egindako bileran (Zuzendaritza honetan apirilaren 19an jaso zen akta), Justizia Administrazioko zuzendaria deitzea erabaki zen, aurrez aurreko langile kopurua zehazteko 2020ko apirilaren 20tik 26ra bitarteko astean aurreikusitako zereginak modu egokian kudeatu ahal izateko, hiru helbururekin:

- a. Zerbitzu erkideetan eta erregistro-bulegoetan sartu diren premiazkoak ez diren gaiei buruzko prozedurak hasteko idazkiak erregistratzea.
- b. Erregistratzen diren gaiak dagozkien organo judizialei banatzea.
- c. Helmugako organo judizial bakoitzean prozedurak hastea, bai prozedurak hasteko jasotako idazkiena, bai alarma-egoeraren hasieran hasteke geratu ziren idazkiena ere.

Organo Iraunkorraren iritziz, jarduera horretarako, gutxienez, funtzionario presentzial bat beharko da organo judizial bakoitzean, eta funtzionario presentzialak indartuko dira Bilboko (3), Donostiako (2), Gasteizko (1) eta Barakaldoko (1) zerbitzu komunetan eta erregistro-bulegoetan.

Apirilaren 18an, Jarraipen Batzordearen Organo Iraunkorrek bilera bat egin zuen Justizia Administrazioko zuzendariaren parte-hartzearekin. Bilera horretan, hilaren 17ko bileran adostutakoa azaldu zitzaion, Donostia, Gasteiz eta Barakaldoko zerbitzu komunetan eta erregistro-bulegoetan langileak behar zirela izan ezik.

Azalpena egin ondoren, Justizia Administrazioko zuzendariak Organo Iraunkorrari eskatu zizkion bulegoen eta epaitegien egoerari buruzko datuak, langileen eta prebentzio-neurrien plangintza egin ahal izateko, eta une hartan ez zuten daturik eman. Ebazpen honen datarekin, Bilboko Epaitegi Dekanoari dagozkion datuak baino ez dira jaso.



Justizia Ministerioak, Lan eta Justiziako sailburuak eta Jarraipen Batzordearen Organo Iraunkorrak emandako arauen ildotik, pandemiaren egungo eta ondorengo kudeaketa-faseetan justizian zerbitzu publikoa emateko, beharrezkoa da zuzkidurak eta izapidetze-irizpideak pixkanaka eta modu koordinatuan egokitzea. Halaber, helburu hori betetze aldera, eraginkortasun eta efizientzia handiagoa lortzeko jarraitu beharreko estrategia planifikatu behar da, eskura ditugun giza baliabideak erabilia eta prebentzio-neurriak sendotuta.

Zuzendari honen 1/2020 Jarraibidearen bidez (Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioako funtsezko zerbitzuei buruz Lan eta Justiziako sailburuaren 2020ko martxoaren 15eko Agindua aplikatzeari dagokionez), ezarri zen funtsezko zerbitzuak eman bitartean bete beharreko ordutegia 09:00etatik 14:00etara izango zela, eta, beraz, ebazpen hau baliatzen da zerbitzua hobeto emateko laguntzen dituzten neurriak hartzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioan eman beharreko zerbitzuak egokitzeke Lan eta Justiziako sailburuaren 2020ko apirilaren 13ko Agindua emandako ahalmenaren arabera, honako hau

#### **EBAZTEN DUT**

**Lenengoa.-** Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioan eman beharreko zerbitzuak egokitzen dituen Lan eta Justiziako sailburuaren 2020ko apirilaren 13ko Aginduan ezarritako langile-zuzkidurak alde batera utzi gabe, eta Jarraipen Batzordearen Organo Iraunkorraren proposamena (emandako datuak, barne) aztertu ondoren, justiziako zerbitzu publikoari aurrez aurre erantzun behar dioten langileak Ebazpen honen eranskinean jasotako organo eta bulegoetan izango dira. Gutxienez bertan adierazten dena.



**Bigarrenena.-** Ezarritako txanden arabera beren lanpostura joan behar duten langileek bost ordu eta erdiko ordutegia izango dute apirilaren 22tik aurrera, eta astetik atera ordu erdi gehiago luzatuko da ordutegi hori. Ordutegia jurisdikzio bereko langileek bete beharko dute, 09:00etatik 14:00etara. Hori, baldin eta presazko jarduketak egiteko ez bada beharrezkoa lanaldia luzatzea.

**Hirugarrena.-** Guardia-zerbitzua egiten duten langileek zerbitzu horri dagokion ordutegia bete beharko dute.

**Laugarrena.-** Ebazpen honek sinatzen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2020 apirilaren 20a

María Isabel Gabriel Bellido  
JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARIA





## ERANSKINA

### I. ARABAKO LURRALDE HISTORIKOA

#### I.I. Vitoria-Gasteizko Barruti Judiziala

- **Emakumearen aurkako indarkerian espezializatutako Epaitegia**

Prozesu eta Administrazio Kudeaketako Kidegoko edo Prozesu eta Administrazio Izapidetzako Kidegoko **2** funtzionario

- **Zerbitzu Erkide Prozesal Orokorra**

Prozesu eta Administrazio Kudeaketako Kidegoko edo Prozesu eta Administrazio Izapidetzako Kidegoko **3** funtzionario  
Laguntza Judizialeko Kidegoko **3** funtzionario



## II. BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOA

### II.I. Barakaldoko Barruti Judiziala

- **Emakumearen aurkako indarkerian espezializatutako Epaitegia**

Prozesu eta Administrazio Kudeaketako Kidegoko edo Prozesu eta Administrazio Izapidetzako Kidegoko **2** funtzionario

- **Zerbitzu Erkide Prozesal Orokorra**

Prozesu eta Administrazio Kudeaketako Kidegoko edo Prozesu eta Administrazio Izapidetzako Kidegoko **2** funtzionario

Laguntza Judizialeko Kidegoko **2** funtzionario

### II.II. Bilboko Barruti Judiziala<sup>1</sup>

- **Epaitegi Dekanoa**

Prozesu eta Administrazio Kudeaketako Kidegoko edo Prozesu eta Administrazio Izapidetzako Kidegoko **4** funtzionario, erregistratzeko eta banatzeko  
Laguntza Judizialeko Kidegoko funtzionario **1**

- **Lehen Auzialdiko Epaitegiak (merkataritzakoak, familiakoak, barneratzeak)**

Prozesu eta Administrazio Kudeaketako Kidegoko edo Prozesu eta Administrazio Izapidetzako Kidegoko funtzionario **1**, hiru familia-epaitegiarako bakoitzeko.

Prozesu eta Administrazio Kudeaketako Kidegoko edo Prozesu eta Administrazio Izapidetzako Kidegoko **7** funtzionario, gainerako epaitegiei arreta emateko.

Laguntza Judizialeko Kidegoko funtzionario **1**, epaitegi guztiak artatzeko.

Prozesu eta Administrazio Kudeaketako Kidegoko edo Prozesu eta Administrazio Izapidetzako Kidegoko funtzionario **1**, banako ekintzen arloko eskumen eskusiboak dituen epaitegi bakoitzeko, higiezin berme errealak dituzten finantzaketa-kontratuetan jasotako baldintza orokorren gainean, mailegu-hartzailea pertsona fisikoa bada.

- **Lan-arloko Epaitegiak**

Prozesu eta Administrazio Kudeaketako Kidegoko edo Prozesu eta Administrazio Izapidetzako Kidegoko **5** funtzionario, epaitegi guztiak artatzeko

Laguntza Judizialeko Kidegoko funtzionario **1**, epaitegi guztiak artatzeko

---

<sup>1</sup> Instrukzio-epaitegiei eta emakumearen aurkako indarkeriaren epaitegiari atxikitako Laguntza Judizialeko Kidegoko langileek, txandakako txandak egiteko, talde bat osatuko dute, eta talde horrek guztiak hartuko ditu.



- **Administrazioarekiko auzien Epaitegiak**

Prozesu eta Administrazio Kudeaketako Kidegoko edo Prozesu eta Administrazio Izapidetzako Kidegoko **3** funtzionario, epaitegi guztiei arreta emateko

- **Emakumearen aurkako indarkerian espezializatutako epaitegiak**

Prozesu eta Administrazio Kudeaketako Kidegoko, Prozesu eta Administrazio Izapidetzako Kidegoko edo Laguntza Judizialeko Kidegoko **4** funtzionario, bi epaitegiei arreta emateko

- **Instrukzio-epaitegiak**

Zaintza-zerbitzuarekin beteko da.

Gainerako epaitegiei erantzungo diete:

Prozesu eta Administrazio Kudeaketako Kidegoko edo Prozesu eta Administrazio Izapidetzako Kidegoko **6** funtzionario

Laguntza Judizialeko Kidegoko funtzionario **1**

- **Zigor-arloko Epaitegiak**

Epaitegi guztiei erantzungo diete:

Prozesu eta Administrazio Kudeaketako Kidegoko edo Prozesu eta Administrazio Izapidetzako Kidegoko **2** funtzionario

Laguntza Judizialeko Kidegoko funtzionario **1**



### III. GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOA

#### III.I. Donostiako Barruti Judiziala

- **Adingabeen Epaitegia eta Zigor-arloko Epaitegiak (Betearazpenak barne)**

Prozesu eta Administrazio Kudeaketako Kidegoko edo Prozesu eta Administrazio Izapidetzako Kidegoko **2** funtzionario, adingabeen epaitegiari eta zigor-arloko epaitegiei arreta emateko.

Txanda bakarra osatuko da Adingabeen Epaitegia eta zigor-arloko Epaitegiak osatzen dituzten langileekin.

- **Lan-arloko Epaitegiak**

Prozesu eta Administrazio Kudeaketako Kidegoko edo Prozesu eta Administrazio Izapidetzako Kidegoko funtzionario **1**, epaitegi guztiei arreta emateko.

- **Administrazioarekiko auzien Epaitegiak**

Prozesu eta Administrazio Kudeaketako Kidegoko edo Prozesu eta Administrazio Izapidetzako Kidegoko funtzionario **1**, epaitegi guztiei arreta emateko.

- **Emakumearen aurkako indarkerian espezializatutako Epaitegia**

Prozesu eta Administrazio Kudeaketako Kidegoko edo Prozesu eta Administrazio Izapidetzako Kidegoko **2** funtzionario

- **Zerbitzu Erkide Prozesal Orokorra**

Prozesu eta Administrazio Kudeaketako Kidegoko edo Prozesu eta Administrazio Izapidetzako Kidegoko **3** funtzionario  
Laguntza Judizialeko Kidegoko **2** funtzionario